Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko maiatzaren 19a, asteartea — 92 — Martes, a 19 de mayo de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

Jendaurreko informaziorako legezko epea igaro ondoren eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, Azkoitiko Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketa arautuko dituen Ordenantza erregulatzailea behin betikoz onartu da, ondoko testuaren arabera:

*Azkoitiko Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako Araudia.*

Azkoitiko Baratze Ekologikoen programa deitutakoa zoru eta uren erabileraren eta tokiko espezieak babesteko planifikazio eta kudeaketa da. Horrez gain, formazio eta ingurumen kontzientziaziorako tresna ere bada. Horretarako, Azkoitiko Udalak barazkigintza ekologikoa sustatu nahi du hezkuntzaren esparruan, praktika jasangarri egokirako baratzeak eta aisialdirako ortuak sortzeko lurrak prestatuz.

Gero eta herritar gehiagok ekiten diote barazkigintzari, batik bat adinekoek; horretarako, Azkoitiarrek landuko dituzten baratze txikiak sustatuko dira; beti ere, familiaren kontsumorako produktuak lortzeko.

Udalak ziurtatuko du, lursailak dauden heinean, Azkoitiar interesatu guztiek izango dutela programan parte hartzeko aukerarik, eta behin lursailak egokituta bertako zerbitzuak eskura izango dituztela.

Erabiltzaileek errespetatu egin beharko dituzte ingurumen araudia eta araudi honek zehaztutakoa, erabilera komunitarioa delako.

### I. ATALA

### PRINTZIPIO OROKORRAK

*1. artikulua. Araudiaren xedea.*

Araudi honen helburua da Azkoitiko Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko diren baldintzak ezartzea, eta arautzea horiek esleitzeko prozedura, baratzeetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Aplikazio eremu objektiboa: Azkoitiko Baratze Parkean kokatu diren lursail guztiak.

Aplikazio eremu subjektiboa: Azkoitiko udalerrian erroldatuta dauden guztiak, esleipenerako Araudi honetako aurreikusitako baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.

*3. artikulua. Definizioak.*

a) Erabiltzailea: Adjudikazioa jaso duena edo lizentziaren titularra. Lagatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa; hau da, baratze ekologikoaren lagapenaren onuraduna.

b) Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, lurraren landaketa eta lanketaren ondorioz lortutako elementuak, izan barazkiak, frutak, lekariak, e.a.

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Habiendo finalizado el plazo de información pública de la ordenanza reguladora de la adjudicación y gestión de las Huertas Ecológicas de Azkoitia sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobado definitivamente según el siguiente texto:

*Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Azkoitia.*

El programa de Huertas Ecológicas de Azkoitia se define como un medio para la formación y concienciación medioambiental, de planificación y gestión de los usos del suelo y del agua, y de conservación de especies autóctonas, con una horticultura ecológica en el ámbito educativo mediante la creación de unos huertos de buenas prácticas sostenibles, huertos de ocio.

La horticultura de ocio constituye una pujante forma de ocupación de muchos habitantes urbanos, especialmente de los más mayores, por lo que se propone el fomento de los pequeños huertos para que los vecinos de Azkoitia obtengan productos destinados al consumo familiar.

El compromiso municipal pasa por facilitar el acceso al programa de todos los interesados, y a la disposición de los terreno que haya y al acceso a los servicios necesarios para el cultivo.

Los usuarios deberán respetar la normativa ambiental y lo regulado por este reglamento porque se trata de un uso comunitario.

### TÍTULO I

### PRINCIPIOS GENERALES

*Artículo 1. Objeto del Reglamento.*

El presente Reglamento regula las condiciones del uso, disfrute y aprovechamiento de las parcelas de Azkoitiko Baratze Parkea, y el procedimiento para la adjudicación de las mismas, la regulación de la actividad de cultivo de los huertos y la responsabilidad de los usuarios.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

Ámbito objetivo de aplicación: Todos aquellos terrenos incluidos dentro de Azkoitiko Baratze Parkea.

Ámbito subjetivo de aplicación: Todos los residentes de derecho y de hecho en el municipio de Azkoitia que cumplan los requisitos previstos en este Reglamento para su adjudicación.

*Artículo 3. Definiciones.*

a) Usuario: Adjudicatario o titular de la licencia. Persona física a favor de la cual, se constituye el derecho a usar y aprovechar el bien que se cede. A los efectos que aquí interesan, el beneficiario de la cesión sobre el huerto ecológico de ocio.

b) Frutos: Rendimientos que se derivan del uso del huerto, esto es, los elementos que derivan de la siembra y tratamiento de la tierra, tales como verduras, frutas, hortalizas, etc.

EK\CV GAO-I-2015-04577

c) Elementu komunak: Baratzeak dauden udal lursailari dagozkion berezko elementuak, jabe bati baino gehiagori edo denei baliagarri zaizkienak: Pasabideak, hesiak, hodiak, tangak, muga-piboteak. Era berean, elementu komuntzat jotzen dira laborantzarako lanabesak eta erabiltzaileen esku jartzen diren gainerako tresnak.

e) Erantzukizuna: Baratzeetako erabiltzaile bakoitzak bere erantzukizuna du. Norbanako bakoitzak du erantzukizuna, erabiltzaile den lursailaren neurrian.

f) Baratze ekologikoa: Norbanako batentzako lursaila. Horren arabera ezartzen da erabiltzaile bakoitzaren erabilera eta aprobetxamendu eskubidea, eta dagokion erantzukizuna.

g) Lursaila: Udal lur-eremua, baratze ekologikoak kokatzeko tokia, hain zuzen.

h) Familia-unitatea: Etxebizitza berean izatez eta eskubidez elkarrekin bizi diren pertsonak: Ezkontideak edo izatezko bikotea (edo bikotekideetako bat alarguntza, banaketa edo dibortzioen kasuan) eta adin txikikoak diren seme-alabak, etxebizitza berean bizi direnak.

*4. artikulua. Baratze Parkeko erabiltzaileen ordezkaria.*

Behin betiko izaeraz esleipendunak diren pertsonek udaleko kudeaketa arduradunarekin harreman zuzena izango duten ordezkariak izendatu beharko dituzte baratze pareka osatzen duen eremu bakoitzean. Ordezkari horiek erabiltzaileen zalantzak, arazoak jasoko dituzte.

Halaber, erabiltzaileen betebeharra izango da, Azkoitiko Baratze Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantenua egitea.

Esleipendunek elkarte bat sortu beharko dute, eta Elkarte horren kide izango dira Azkoitiko Baratze Parkearen atal diren eremuetatik edozeinetan partzela esleituta dutenak.

*5. artikulua. Lagapen epea.*

Lursailaren aprobetxamenduak edota erabilerak urtebeteko epea izango du; eta gehienez ere lau urtera arte luzatu ahal izango da.

Epea automatikoki luzatuko da aldeetako batek kontrakorik eskatu ez badu epea amaitu baino hilabete lehenago.

Esleipendunak, lizentzia amaitu aurreko hilabetean, baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.

*6. artikulua. Erabilerarako oinarri orokorrak.*

1. Kontserbazio eta mantenimendua: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursaila egoki zaintzea eta mantentzea, hurrengo printzipioek zehazten duten moduan.

2. Elkarrenganako errespetua instalazioak erabiltzerakoan: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek ezingo diete eragozpen, kalte edo minik eragin besteei.

3. Saltzeko debekua: Baratzeen erabiltzaile guztiek debekatuta izango dute haietan lortutako produktuak saltzea.

4. Autohornikuntza: Baratzetik lortutako fruituak familia-unitatearen kontsumorako izango dira. Ezingo da, inolaz ere, horietatik etekin ekonomikorik atera.

5. Ingurumen prebentzioa: Baratzeen erabiltzaileek soilik nekazaritza ekologikorako produktuak erabiliko dituzte, eta ez dira erabiliko lurrari kalte larriak eragiten dizkioten produktuak: Ongarriak, fitosanitarioak. Era berean, ez dira erabiliko akuiferoak kutsa ditzaketen produktuak. Araudi honek zehaztutako guztia beteko da.

c) Elementos comunes: Son los elementos naturales o dispuestos en la parcela municipal donde se encuentran los huertos y que sirven a más de uno de los propietarios o a todos en común: Pasillos, vallados, tuberías, depósitos, pivotes de delimitación etc. Igualmente los aperos de labranza y herramientas que se ponen a disposición de los usuarios.

e) Responsabilidad: Responsabilidad que recae sobre cada uno de los usuarios de los huertos, de forma individualizada y en relación con la porción de terreno de la que sea usuario.

f) Huerta ecológica: Porción de terreno individualizada. Sobre la misma se constituye el derecho del usuario para el uso, disfrute y aprovechamiento.

g) Parcela: Terreno municipal donde están los huertos ecológicos de ocio.

h) Unidad familiar: Personas que conviven de hecho y de derecho en una misma vivienda: Cónyuges o parejas de hecho (o uno de ellos en caso de viudedad, separación o divorcio) e hijos menores de edad que convivan en el mismo domicilio.

*Artículo 4. Representante de los usuarios de Baratze Parkea.*

Las personas adjudicatarias con carácter definitivo deberán asignar un representante por cada ámbito que integra el Azkoitiko Baratze Parkea para el contacto directo con el ayuntamiento. Estos portavoces se encargarán de recoger las dudas, problemas, etc. de los usuarios.

Además, será obligación de los usuarios salvaguardar el correcto funciona-miento de Azkoitiko Baratze Parkea y realizar el mantenimiento mínimo.

Los adjudicatarios deberán crear una Asociación y serán miembros del mismo todos los adjudicatarios que tengan adjudicado una parcela en cualquiera de los ámbitos condicionados a Azkoitiko Baratze Parkea.

*Artículo 5. Plazo de cesión.*

El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de cuatro años.

Las prórrogas se prorrogarán automáticamente si ninguna de las partes solicita lo contrario con un mes de antelación a la finalización.

El adjudicatario deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por el siguiente adjudicatario.

*Artículo 6. Principios generales de uso.*

1. Conservación y mantenimiento: Será obligación principal del usuario de los huertos ecológicos de ocio, la adecuada conservación y mantenimiento del terreno que se le cede, según lo especificado en los siguientes principios.

2. Respeto recíproco en el uso de las instalaciones: Toda persona que sea usuaria de un huerto ecológico de ocio, deberá evitar molestias, daños o perjuicios a las demás.

3. No comerciabilidad: Los usuarios de los huertos tendrán prohibido comercializar los productos que obtengan de los mismos.

4. Autoabastecimiento: Los frutos obtenidos de la siembra de los huertos, únicamente podrán ser objeto de consumo propio o de la unidad familiar, y no podrán destinarse a percibir rendimientos económicos.

5. Prevención ambiental: Los usuarios de los huertos sólo podrán utilizar productos de agricultura ecológica y no podrán utilizar productos que provoquen deterioros sobre la tierra: Fertilizantes, fitosanitarios. Tampoco se podrán utilizar productos que puedan contaminar los acuíferos. Se acatará todo lo establecido por este reglamento.

EK\CV GAO-I-2015-04577

*7. artikulua. Legeria aplikagarria eta arautzea.*

1. Aisialdirako udal baratze horien erabilera, eremu publikoko ondasunen erabilera komun berezi gisa kalifikatu behar da, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiaren 75.1.b) artikuluak dioenari jarraiki; hori dela eta, lizentzia lortu beharko da. Lizentzia kopurua mugatua izango da; hortaz, lizitazio bidez esleitu beharko da baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera-baimena eskatzaile guztien artean.

2. Beraz, eremu publikoko ondasunak erabiltzeko baimena izanik, informazio publikorako epe bat ezarriko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen arabera.

3. Aisialdirako baratze ekologikoen esleipenari, jabetzari eta erabilerari aplikatuko zaien legeria araudi honetan aurreikusitakoa izango da.

4. Izaera subsidiarioan aplikatuko dira 33/2003 Legean, azaroaren 3koan (Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa) jasotako arauak.

Udalak baimenaren beharra eta baldintza berak mantenduko ditu helburu horretarako lortu dituen jabetza pribatuko lurretan ere.

*8. artikulua. Lagapen titulua.*

Lizentziak baratzea erabiltzeko ematen duen eskubidea pertsonala da eta besteri eskualdaezina, eta lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean soilik balioko du. Erabiltzaileak ezingo ditu, inola ere, laga, zergapetu, edo debalde edo kostu bidez eman lizentziak emandako erabilera eskubideak. Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori eman inolako kasutan.

Lagatako lizentziaren tituluak «prekario» izaera du, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatu batengatik, edozein unetan lizentzia kendu ahalko dio erabiltzaileari. Kasu horietan Udalak ez du inolako kalte-ordainik eman beharko.

Interes publikoko kausa justifikatutzat hartuko da, besteak beste, programa honekin bateragarria den edo programa ordezkatzera datorren beste edozein udal programa onartzea. Era berean, Udalak edo beste edozein herri administraziok beste edozein plan onartzea hiri edo azpiegituren garapenerako, baldin eta zuzkidura publikorik ezarri beharko balitz aisialdirako baratze ekologikoen kokapen berean. Kasu horietan, aipatutako plana onartzeak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitorpena izango du. Aitorpen horrek erabilerarentzako lizentziaren balioa indargabetuko du, eta emandako baimenen zati baten edo erabateko galera ekar lezakete, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Jabetza pribatuko lurrentzat aski izango da Udalaren eta jabetza pribatuaren arteko kontratuaren amaiera.

*9. artikulua. Baratze-programaren funtzionamendurako argibideak.*

Aisialdirako baratze ekologikoen programaren jarduerentzako jarraibideak agindu ahal izango ditu alkateak: egituratzeko moduak, aholkuak, ordutegiak, laborantza-motak, e.a. Baratzeen erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzte jarraibide horiek guztiak, baita alkateak, zinegotzi delegatuak edo Udaleko arduradunek erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak ere.

*Artículo 7. Régimen aplicable y regulación.*

1. El uso de estos huertos de ocio municipales, debe calificarse de uso común especial de bienes de dominio público, según establece el Art. 75.1.b) del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales, por lo que deberá someterse a licencia, y dado que el número de licencias es limitado, la autorización de uso para la explotación de las huertas ecológicas deberá adjudicarse mediante licitación entre todos los solicitantes.

2. Por tanto, por tratarse de una autorización para la utilización de bienes de dominio público se establecerá un período de información pública, en los términos previstos en el Artículo 86.1o de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3. El régimen que se aplicará a la adjudicación, posesión y disfrute de los huertos ecológicos de ocio, será el previsto en la presente reglamento.

4. Subsidiariamente, se aplicarán las normas contenidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y Reglamento de Bienes de las entidades locales.

El Ayuntamiento mantendrá la necesidad de licencia y mantendrá las mismas condiciones en aquellos suelos de propiedad privada de haya obtenido para este mismo fin.

*Artículo 8. Título de concesión.*

La licencia otorga un uso del huerto personal e intransferible, y solo producirá efectos mientras concurran las condiciones establecidas para su concesión. El usuario no podrá en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito de los derechos que se deriven de la utilización de uso autorizado por la licencia. Dichos derechos no podrán ser en ningún caso objeto de transmisión a terceros.

El título de la licencia concedida será «a precario» para el usuario, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público, revocar la licencia concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

Serán causas justificadas de interés publico, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de huertos ecológicos de ocio. También, la aprobación de cualquier plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra administración pública, que conlleve la implantación de una dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio. En estos casos, la aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, dejará sin vigencia las licencias para el uso de los terrenos demaniales, y pueden dar lugar a la pérdida total o parcial de la autorización concedida sin derecho a indemnización alguna.

Para los terrenos de propiedad privada será suficiente la finalización del contrato entre el Ayuntamiento y la propiedad privada.

*Artículo 9. Instrucciones de funcionamiento del programa de huertos.*

El Alcalde podrá dictar instrucciones sobre la actividad del programa de huertos ecológicos de ocio a fin de regular formas, horarios, tipos de cultivos etc. que serán de obligado cumplimiento por los usuarios. También lo serán las indicaciones y órdenes verbales del alcalde, concejal o personal encargado del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2015-04577

II. ATALA

ESLEIPEN PROZEDURA

*10. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien onuradun izan ahalko dira Azkoitiko udalerrian erroldatuak dauden pertsonak. Ezinbestekoa izango da esleipenerako deialdia argitaratu aurretik gutxienez hiru urte erroldatua izatea.

Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Azkoitiko Udalarekiko zerga-betebeharrak eta beste edozein motatakoak ordainduta izatea.

b) Familia-unitate bereko kideren bat ez izatea beste baratze ekologiko baten erabiltzaile.

c) Ez izatea nekazaritza-jarduerarako egokiak diren beste landa-lur baten jabe, ez edukitzea beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ezta maizterra izatea ere, ez erabiltzailea bera, ezta familia unitateko beste edozein kide ere.

d) Araudi honetan zehaztutako ez-betetzeren batengatik zehapenen bat jaso ez izana.

*11. artikulua. Lizentziak esleitzeko prozedura.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera ahalbidetzen duten lizentziak emateko konkurrentzia erregimena aplikatuko da, kontuan izanik lizentzia kopurua mugatua dela. Hala ere, ez zaie intereseko taldeei ezarriko hori, eta Udalak zenbait lur gorde ahal izango ditu erabilera espezifiko horretarako.

2. Prozedura hori ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen tokiko organoak dagokion ebazpena egin ondoren. Ebazpen horretan jasoko da aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien lagapenari buruzko deialdia, bai baratze guztientzat, bai haien kopuru mugatu batentzat. Deialdi hori udaletxeko iragarki taulan argitaratu beharko da, baita Udalaren webgunean ere (www.azkoitia.net).

3. Baratze ekologikoen esleipenean interesa duten pertsonek eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialean. Eskabideak zehaztutako dokumentuez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun txartela edo ordezko agiri legalaren fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena.

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea gutxienez hiru urte aurretik erroldatuta dagoela, arau-hausterik ez duela eta Udalarekiko zerga-betebeharrak edo beste edozein eratakoak bete dituela.

*12. artikulua. Eskumena eta prozedura.*

Alkatetzak ebatziko du lizentziak emateko prozedura.

Gutxienez hamar egun naturaleko epea ezarriko da instantziak aurkezteko. Ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da iragarki-taulan.

Interesdunek 5 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda dakarren ebazpena argitaratuko da. Lursailen kopurua baino eskaera gehiago aurkezten badira, jendaurreko zozketa egingo da, horretarako data behar bezala iragarriz.

Ondoren, zozketa eginda hala badagokio, esleipenen eta erreserben behin betiko zerrendak argitaratuko dira, udaletxeko iragarki-taulan.

TÍTULO II

PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

*Artículo 10. Requisitos para ser beneficiario.*

1. Podrán ser beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de ocio, las personas empadronadas en Azkoitia y que efectivamente residan en la localidad durante al menos tres años antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación.

Además, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Azkoitia.

b) Que ningún miembro de una unidad familiar sea usuaria de otro huerto ecológico.

c) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento ni el solicitante ni ningún miembro de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en cualquier lugar.

d) No haber sido sancionado por incumplimiento previsto en el presente reglamento.

*Artículo 11. Procedimiento para la concesión de licencias.*

1. El procedimiento aplicable al otorgamiento de las licencias que habiliten para el uso de los huertos ecológicos de ocio será en régimen de concurrencia, dado el número limitado de las mismas. Sin embargo no será de aplicación a los grupos de interés, pudiendo el Ayuntamiento reservar determinados suelos para su utilización específica.

2. Dicho procedimiento se iniciará de oficio por el Ayuntamiento, previa resolución en tal sentido dictada por el órgano local competente, en la que se contendrá la convocatoria de concesión de licencias de ocupación de huertos ecológicos de ocio, bien referida a la totalidad de las huertas o a un número limitado de ellas. Dicha convocatoria será publicada en el tablón de edictos del Ayuntamiento, así como en la página web (www.azkoitia.net) del mismo.

3. La persona interesada en la adjudicación de los huertos ecológicos deberá presentar solicitud en el Registro municipal, con arreglo al modelo oficial. Además de la documentación requerida en el impreso, tendrán que presentar los siguientes:

a) Fotocopia del dni o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos o declaración jurada de que cumple los requisitos establecidos en el artículo anterior.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y los tres años de antigüedad, la ausencia de infracciones y el estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.

*Artículo 12. Competencia y procedimiento.*

El procedimiento de concesión de licencias se resolverá por la Alcaldía.

Se establecerá al menos un plazo de al menos diez días naturales para presentar instancias. A continuación se aprobará la lista provisional de admitidos y excluidos en el tablón de anuncios.

Los interesados podrán presentar reclamaciones en el plazo máximo de cinco días naturales. Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de admitidos y excluidos. Si hubiese más solicitudes que huertas a adjudicar, se efectuará un sorteo público, cuya fecha se anunciará oportunamente.

A continuación, hecho el sorteo si hubiese sido necesario, se publicará la lista de adjudicación y lista de reserva definitiva, publicándose en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2015-04577

*13. artikulua. Lizentziak esleitzea eta ordezkoen zerrenda.*

Lizentziak argi azaldu beharko ditu honakoak: xedea, baratzearen definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Zozketa egin ondoren baratzerik gabe gelditzen direnen izenak ordezkoen zerrenda batean jasoko dira, zozketan atera den hurrenkeran. Zerrenda hori erabiliko da bajak betetzeko; kasu horretan, dei egingo zaio hurrengo hautagaiari, aipatutako zerrendaren arabera, lizentziaren indarraldia eta laborantza epe emankorra kontuan hartuta.

Baratzearen erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, esleipendunak urteko kuotaren kopurua autolikidatu beharko du eta fidantzari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du lizentzia jasotzeko. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuliko da fidantza hori, denboraldi berrirako beste baratze baten esleipenduna ez bada.

*14. artikulua. Zozketa irizpideak.*

Zozketa irizpideak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira.

*15. artikulua. Lizentzien iraupena.*

1. Lizentziek urtebeteko iraupena izango dute, eta gehienez 4 urtera arte luzatu ahalko dira, nahiz eta titularrak eskubidea izango duen hurrengo deialdietan parte hartzeko.

2. Kasu bakoitzean eskumena duen tokiko organoak indargabetu ahal izango ditu aipatutako lizentziak, emakida ahalbidetu zuten baldintzak edo araubide honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badituzte erabiltzaileek.

*16. artikulua. Lizentziak besterenganatzea eta lizentziak iraungitzea.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

a) Ezingo zaizkio beste inori transmititu.

b) Epea betetzean iraungiko dira.

c) Bertan behera geldituko dira edo kenduko dira:

c1) Alde bien adostasunarekin.

c2) Ebazpen judizialen bitartez.

c3) Lagapen-hartzaileak uko egiteagatik.

c4) Araudi honetan edo dagokion lizentzia ematen duen ebazpenean jasotako betekizun eta xedapenak ez betetzeagatik. Kasu horietan, interesdunari jakinaraziko zaio espedientearen tramitazioari ekin aurretik.

III. ATALA

ERABILERA ETA APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK

*17. artikulua. Erabilerarako baldintza orokorrak.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoen esleipendunak behartuta egongo dira baratzeak eurek erabiltzera eta ez lagatzera beste pertsona batzuei. Oporraldi eta antzeko kasuetan, Udalari jakinarazi beharko zaio beste norbaitek erabiliko duela baratzea. Kasu horietan Udalak du epe baterako baimena emateko edo ukatzeko eskumena.

Horrez gain, honako baldintzak ere bete beharko dituzte:

a) Arau orokor gisa, baratzeen erabilerari buruzko araudi honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.

b) Baratzeetan tokiko espezieak bakarrik landatuko dira: letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, babarrunak; bai eta inguruan ohikoak diren apainketarako landare eta loreak, aromatikoak eta sendabelarrak ere. Bertakoak ez diren espezie guztiak baztertuko dira.

*Artículo 13. Adjudicación de licencias y lista de suplentes.*

La licencia que se conceda a los adjudicatarios, deberá especificar la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones del usuario y la vigencia de la licencia.

Los que en el sorteo no hubiesen conseguido una licencia, se incluirán en una lista de suplentes. Esa lista será utilizada para cubrir bajas, realizándose un llamamiento al siguiente candidato según el orden de sorteo, dentro del periodo de vigencia de la licencia y del periodo fértil del cultivo.

Una vez adjudicada la licencia, el adjudicatario deberá autoliquidar el importe de la cuota anual y depositar la fianza correspondiente establecida. La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, si no es adjudicatario de otro huerto para esa nueva temporada.

*Artículo 14. Criterios de sorteo.*

Los criterios de sorteo se especificarán en la convocatoria para la licitación correspondiente.

*Artículo 15. Temporalidad de las licencias.*

1. Las licencias tendrán la duración de un año, con un máximo de 4 años improrrogables, aunque el titular tendrá derecho a optar a las huertas en siguientes convocatorias.

2. El órgano local que resulte competente, podrá dejar sin vigencia las citadas licencias, si el usuario incumpliera las condiciones para la adjudicación o las obligaciones establecidas por este reglamento.

*Artículo 16. Transmisibilidad y extinción de las licencias.*

1. Las licencias que conceden el derecho al uso de los huertos ecológicos de ocio:

a) No serán transmisibles a terceras personas.

b) Se extinguirán por vencimiento del plazo.

c) Podrán ser revocadas o anuladas:

c1) Por mutuo acuerdo.

c2) Por resolución judicial.

c3) Por renuncia del concesionario.

c4) Por incumplimiento de las obligaciones y disposiciones contenidas en el presente reglamento o en la resolución por la que se conceda la correspondiente licencia, previa la tramitación de expediente con audiencia al interesado.

TÍTULO III

CONDICIONES DE USO Y APROVECHAMIENTO

*Artículo 17. Condiciones generales de uso.*

1. Las personas adjudicatarias del uso de los huertos ecológicos de ocio, están obligadas a usar el huerto por sí mismas y a no ceder el uso de los huertos a terceras personas. En caso de vacaciones o similar, deberá comunicarse al ayuntamiento que la huerta será utilizada por otra persona. En estos casos es facultad del Ayuntamiento conceder o denegar ese permiso temporal.

Además, deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Como regla general, deberán respetarse todos los aspectos recogidos en la presente reglamento.

b) En los huertos se cultivarán exclusivamente especies vegetales hortícolas de la zona: lechuga, tomate, cebolla, puerro, calabacín, alubias, etc, así como flores o plantas ornamentales y plantas aromáticas o medicinales. Se descartarán todas aquellas especies que no sean autóctonas.

c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutakoan zuten egoera beretan mantentzea, behar bezala zainduta. Lursailak garbi egon beharko du uneoro.

d) Erabiltzeko emango diren elementu komunak eta lanabesak egoki mantendu eta zaintzea. Udalari jakinarazi beharko diote baratzeei edo instalazioei eragiten dien edozein gertakari, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonek eragindakoak izan arren.

e) Erabiltzaile berriek erabiltzeko moduan itzultzea baratzea Udalari, lizentziaren epea amaitzen denean edo, lizentziari uko egin edo bertan behera uzten den kasuetan, erabakia gauzatzen den unean.

f) Hasieran lagatzen den lursailaren egitura eta azalera errespetatzea. Hortaz, erabiltzaileak ezingo ditu Udalak ezarritako mugak aldatu, ezta Udalaren baimenik gabe obrarik edo itxiturarik egin ere. Era berean, titularrak ezingo du jarri zehazki lurraren laborantzarako ez den beste ezer: barbakoak, etxolak, biltegiak.

g) Baratzeetako beste erabiltzaileei eragozpenik ez sortzea. Ez erabiltzea kalterik edo minik eragin lezakeen tramankulu, mekanismo edo bestelako sistemarik.

h) Laborantzan, garbiketan edo baratzeko gainerako zereginetan arau honetan onartutako produktuak besterik ez erabiltzea.

i) Baratzeak eskatzen dituen lan guztiak egitea, batik bat fruituak biltzea, horiek kiratsa sortzen, lursaila zikintzen edo paisaiari eta inguruari kalte egiten badiete.

j) Baratzeetan ezingo dira materialak edo tresnak bildu edo pilatu, ezinbestekoak ez badira lurraren laborantzarako.

2. Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak, erabilera eta garbitasun egoera egokietan mantendu eta errespetatu beharko dira. Erabiltzaileen gehiengoak elementu komunak mantentzeko erabakitzen dituen erabakiak bete beharko dira ezinbestean. Era berean, erabiltzaileen taldeak ordezkari bat edo batzuk aukeratu beharko ditu elementu komunen gaineko erabaki lotesleak hartzeko edo Udalarekiko harremanetan bozeramaile izateko.

3. Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetakoren bat beteko ez balu, Udalak lizentzia kendu ahal izango lioke.

4. Era berean, erabiltzaileek eurek egingo dituzte egunero-egunero baratzearen kontserbaziorako lanak, konponketak eta instalazioen mantentze-lanak, eta zainduko dute erabilera egokia dela.

5. Esleipendunek derrigorrez parte hartu beharko dute EKOGUNEk antolatzen dituen nekazaritza eta baratzezaintza ekologikoko praktika onen ikastaro teoriko eta praktikoetan.

6. Baratze kideak behartuta daude elkarte bat sortu, eta eremu bakoitzean bozeramaile bat izendatzera. Udaletxeko teknikariarekin harreman zuzena izango dute eta elkartearen edota eremuko kezkak, arazoak, etab. bideratuko dituztenak.

7. Baratze kideen elkarteak finkatu beharko du mantentze-lanen egutegi bat, elkar lanean ekiteko Baratza Parkeko beharrei (baratze muga eta azken garbiketa, etab.). Egutegi hau Udaletxeko arduraduna eta Ekoguneako koordinatzailearekin adostu beharko dute Elkartearen bozeramaileek.

8. Baratzetara animaliak eramatea debekatuta dago.

*18. artikulua. Lurraren aprobetxamendua.*

Lagapenaren titularra behartuta dago lagatako baratzea lantzera; nekazari on batek bezala jardun beharko du eta lana-

c) Mantener las instalaciones que se ceden, en las mismas condiciones que se entreguen, aplicando la debida diligencia. La parcela deberá estar limpia en todo momento.

d) Custodia y cuidado adecuado de los bienes que se entregan en concepto de uso. Deberán poner en conocimiento del Ayuntamiento cualquier incidencia que afecte a los huertos o instalaciones, provocadas por los demás usuarios, o por terceras personas.

e) Devolver el huerto al Ayuntamiento en condiciones adecuadas para ser utilizadas por los nuevos usuarios, una vez finalice el plazo de licencia o en caso, de renuncia o revocación de la licencia en el mismo momento en que se haga efectivo la misma.

f) Mantener la misma estructura y superficie de la parcela que se cede en origen, no pudiéndose variar el deslinde efectuado por el Ayuntamiento, ni realizar ningún tipo de obra o cerramiento que no fuera previamente autorizado por el Ayuntamiento. Asimismo, no podrá instalar ningún elemento que no se destinen específicamente al cultivo de la tierra: Barbacoas, cobertizos, casetas, etc.

g) Evitar causar molestias a los demás usuarios de los huertos, absteniéndose de la utilización de artilugios, mecanismos o sistemas que pudieran provocar daños o lesiones a los mismos.

h) Utilizar exclusivamente las sustancias autorizadas en este reglamento para el cultivo, la limpieza o con cualquier otro fin.

i) Realizar todos los trabajos de la huerta, en especial recolectar los frutos si los mismos producen hedor, ensucian el terreno, o perjudican el entorno y la vista del paisaje.

j) No se podrá depositar o acumular materiales o herramientas sobre los huertos, que no sean estrictamente necesarios para el cultivo.

2. Deberán respetarse y mantener en las debidas condiciones de uso y limpieza los elementos comunes, tanto las infraestructuras como los aperos. El usuario estará obligado a someterse a las decisiones que para el mantenimiento de los elementos comunes que decida la mayoría de usuarios. Igualmente el conjunto de usuarios deberá designar a uno o varios representantes para la toma de decisiones vinculantes que afecten a los elementos comunes, así como para la interlocución con el Ayuntamiento.

3. El incumplimiento de cualquiera de las anteriores condiciones por parte del titular de la licencia, dará lugar a la revocación de la misma, por el Ayuntamiento.

4. Asimismo la conservación, reparación y mantenimiento de las instalaciones y del correcto uso de la misma será vigilada en el día a día por los propios usuarios.

5. Los adjudicatarios estarán igualmente obligados a asistir a los cursos teóricos y prácticos de buenas prácticas agrícolas y horticultura ecológica organizados por ekogune.

6. Los adjudicatarios están obligados a crear una asociación, y designar un portavoz en cada área, que mantendrán contacto directo con el técnico municipal, y canalizarán las dudas, problemas, etc. de la asociación o del área en cuestión.

La asociación de adjudicatarios deberá fijar un calendario de las labores de mantenimiento, para encarar en equipo las necesidades del Parque de Huertas (límites de la huerta, limpieza final, etc.). Los portavoces de la asociación deberán acordar dicho calendario con el responsable municipal y el coordinador de Ekogunea.

8. Está prohibido llevar animales a las huertas.

*Artículo 18. Aprovechamiento de la tierra.*

El titular de la cesión deberá cultivar el terreno cedido para el huerto con la diligencia de un buen labrador y utilizar los ape-

EK\CV GAO-I-2015-04577

bes egokiak erabili beharko ditu. Aurreko artikuluak zehaztutakoez gain, baratzeen aprobetxamenduak arau hauek ere bete beharko ditu:

a) Ez da onartuko lurrak, zorua edo azpiko lurra kaltetzen duten landareak edo barazkiak landatzea.

b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du espezie exotiko edo inbaditzailerik landatu, ezta legez onartuta ez dagoen bestelako landarerik ere.

c) Bestalde, ezin da inolako zuhaitzik landatu, fruta arbolak badira ere.

d) Ezingo dira instalatu negutegiak, kutxak, iltzatutako elementuak, etxolak, txorimaloak, panpinak edo antzekoak.

e) Debekatuta dago baratzeko laborantzaren hondarrak edo belardiak erretzea.

f) Ezin da elementurik instalatu baldin eta paisaiari eragiten badiote edo dauden instalazioak aldatzen badituzte, izan bidoiak, deposito osagarriak, txapak, banatzaileak edo antzekoak.

g) Ezin da eraikuntzarik egin lursailetan, ezta itzalpeak edo zintzilikatzeko tresnak edo inguruaren itxura alda dezaketen bestelako elementuak erantsi ere.

h) Ezingo dira erabili zepoak, tranpak, sokak, edo suzko armak, gomazko jaurtigailuak edo bestelako tresna edo tramankulurik.

i) Lursaila ezin da hesiekin itxi (harri, egur, adreilu, bloke zein bestelako eraikuntzarako elementu mugatzaileekin), baratzearen ertzak edo mugak itxi, markatu edo mugatzeko, Udalak horretarako aukeratu dituenetatik aparte.

2. Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetakoren bat beteko ez balu, Udalak lizentzia kendu ahal izango lioke.

*19. artikulua. Erabiltzailearen ahalmenak.*

Lizentziadunek honako ahalmenak izango dituzte: Egokitu zaion lursaila lantzea eta hortik aterako diren fruituak aprobetxatzea.

1. Ahalmen horiek dira lurra lantzea, landatzea eta ereitea, zaintzea eta mantentzea, ureztatzea, ongarriztatzea, horretarako beharrezko dituen tresnak erabiltzea, fruituak biltzea, eta helburu bera duten gainerako lan guztiak.

2. Era berean, elementu komunak erabili ahal izango ditu, Udalak erabiltzaileen eskura jartzen dituen laborantzarako lanabesak barne. Udalak jarritako lanabesak erabiltzaileek mantendu eta konpondu beharko dituzte. Puskatuko balira, erabiltzaileak berak konpondu edo erosi beharko ditu.

3. artikulu honetan adierazitako gaitasunak lizentziaren titularrari baino ez dagozkio.

4. Gaitasun horiek iraungi egingo dira erabilerarako lagapenaren epea amaitzen denean, edo berau ahalbidetzen duen lizentzia kentzen denean, araudi honetan jasotako kasuetan.

5. Inola ere ez da onartuko baratzeen gaineko jabetza eskubidea eskualdatzea.

*20. artikulua. Nekazaritza ekologikoa.*

Baratzeen erabileraren onuradunek ez dute erabiliko lurrari, azaleko urari eta akuiferoei kalte larririk eragin ahal dien produktu fitosanitariorik edo bestelako ongarririk. Ezta atmosferara partikulak isuri ere, pertsonei, faunari zein florari kalteak eragiteko arriskua badute. Era berean, ezingo da erabili zorua kutsa dezakeen bestelako garbiketa produkturik ere.

ros adecuados. Sin perjuicio de lo establecido en el artículo anterior, el aprovechamiento de los huertos se deberá sujetar a las siguientes normas:

a) No se permitirá el cultivo de especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.

b) Asimismo, el usuario no podrá plantar especies exóticas, invasoras o aquellas otras cuyo cultivo o siembra no estuviera permitido por ley.

c) Así mismo, no podrá plantar árboles de ningún tipo, aunque se trate de árboles frutales.

d) No se podrá instalar invernaderos, cajas, elementos clavados, casetas, espantapájaros o similares.

e) Se prohíbe la quema de pastos o restos del cultivo de huertos.

f) No se permite la instalación de elementos que deterioren el paisaje o que alteren las instalaciones existentes, tales como bidones, depósitos complementarios, chapas, separadores o similares.

g) No se permite la construcción de edificaciones en las parcelas, ni colocación de sombreados, tendederos o cualquier otro elemento que altere el aspecto del entorno.

h) No se podrá utilizar cepos, trampas, lazos, o escopetas de perdigones o balines, tiradores de goma u otros utensilios o instrumentos,

i) No se permite el cierre de la parcela con vallas (piedras, maderas, ladrillos, bloques o otros elementos constructivos o delimitadores) para cerrar, delimitar, marcar o señalar el huerto, sus esquinas u orillas que los establecidos por el Ayuntamiento para su delimitación.

2. En caso de incumplimiento de cualquiera de las anteriores normas por parte del titular de la licencia, dará lugar a la revocación de la misma por parte del Ayuntamiento.

*Artículo 19. Facultades del adjudicatario.*

Son facultades de la persona que haya resultado adjudicataria las de cultivar la tierra y el aprovechamiento de los frutos obtenidos.

1. Dichas facultades se concretan en el labrado de la tierra, la siembra y plantación, el cuidado y mantenimiento de aquélla, el riego, el abono, el uso de las herramientas precisas para ello, la adquisición de los frutos, y cualquier otra labor que tenga el mismo objetivo.

2. Igualmente comprende el uso, disfrute y aprovechamiento de los elementos comunes, incluyendo los aperos de labranza que el Ayuntamiento ponga a disposición. El mantenimiento y arreglo de los aperos será a cargo de los usuarios. En el caso de que se rompan deberá arreglarlos o reponerlos cada usuario.

3. Las facultades expresadas en este artículo únicamente corresponderán al titular de la licencia.

4. Dichas facultades se entenderán extinguidas una vez transcurra el plazo de concesión del uso, o se revoque la licencia que habilita el mismo, en base a las causas expresadas en este reglamento.

5. En ningún caso se entenderá transmitido el derecho de propiedad sobre los huertos.

*Artículo 20. Agricultura ecológica.*

Las personas beneficiarias del uso de los huertos se cuidarán de no utilizar fertilizantes ni productos fitosanitarios que contaminen y que entrañen riesgo de provocar un grave perjuicio sobre la tierra, las aguas superficiales y los acuíferos. Tampoco podrán emitir partículas indeseables a la atmósfera que puedan provocar daños tanto a la fauna como a la flora o a las personas del lugar. Tampoco se podrán utilizar productos de limpieza u otros que contaminen el suelo.

EK\CV GAO-I-2015-04577

Bestalde, debekatuta dago lurrera ezer kutsatzailerik botatzea, baldin eta zoruari kalte larririk eragin ahal badio. Ahal den neurrian, erremedio naturalak erabiliko dira izurri eta gaixotasunen aurka eta lurra aldiro-aldiro ongarriztatu egingo da, aldez aurretik deskonposatutako materia organikoa erabiliz (konposta, simaurra, hondakin organikoak), ongarri artifizialak erabili ordez.

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei uko egin gabe, burutuko den nekazaritza ekologikoa izango da. Hortaz, a. Dehovelen definizioari jarraituz, ez da erabiliko produktu kimikorik: a) kimikoki eraldatutako produktu naturalak, b) tratatutako material begetala edo animalien zuntzak, c) osorik edo zati batean sintesi kimiko bidez lortutako produktuak.

Gauzak horrela ulertzeko moduarekin bat, Baratza Parkeko lursailen erabileran nekazaritza ekologikoaren arau hauek kontuan izango dira:

1) Ongarriei dagokienez:

Debekatuta daude:

a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Espainiako estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak).

b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab).

Onartuta daude:

a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako zimaurrak (konpostajea hartzidura aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.

b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.).

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

Debekatuta dago:

a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

Onartuta daude:

a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoñako salda, etab.).

b) Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak).

3) «Belar txarrei» dagokienez:

Debekatuta dago sintesiko edozein herbizida kimiko erabiltzea.

Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (bigungarria, eskuzko jorraia edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

4) Hazi eta landareei dagokienez:

Ahal den neurrian, ez dira erabiliko:

a) Laborantza kimikotik datozen birlandatzeko barazkien erabilera.

b) Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkuluen erabilera.

c) Bildu ondoren produktu kimiko sintetikoekin tratatutako hazien erabilera.

Igualmente queda terminantemente prohibido, realizar cualquier vertido de productos contaminantes sobre la tierra, que puedan provocar un daño grave al suelo. En la medida de lo posible, se usarán remedios naturales contra las plagas y enfermedades y se abonará la tierra con regularidad con materia orgánica previamente descompuesta (compost, estiércol, restos orgánicos, etc.) en lugar de fertilizantes artificiales.

Tratando de entroncar esta actividad con los métodos tradicionales de labranza, pero sin renunciar a nuevos conocimientos y técnicas que se preocupan del medio ambiente de un modo científico, la agricultura a desarrollar será ecológica. Siguiendo la definición de a. Dehovel, se prescinde de productos químicos: a) productos naturales por tratamiento químico, b) material vegetal o tejidos animales por tratamiento, c) productos de síntesis química, sea parcial o no.

En consonancia con este modo de entender las cosas, en el uso de las parcelas de Baratza Parkea se tendrán en cuenta las siguientes normas de la agricultura ecológica:

1) Con relación a los fertilizantes:

Quedan prohibidos:

a) Todos los abonos orgánicos de síntesis (la totalidad de los que comercializan en el estado español) y los compost elaborados con productos contaminados (pajas, estiércoles, hierbas y abonos orgánicos tratados con pesticidas y herbicidas).

b) Todos los abonos minerales (nitrogenados, fosfatados, potásicos, magnésicos, cal viva, etc.) obtenidos por procedimientos químicos.

Quedan autorizados:

1. Los abonos procedentes de humus de lombrices, los estiércoles compostados (entendiendo el compostaje como un proceso de fermentación aeróbica), abonos verdes y restos de cosechas perfectamente descompuestos, así como los compost elaborados a partir de residuos no contaminados.

b) Los abonos minerales de origen natural (fosfatos naturales molidos, polvos de silíceas, calizas molidas, dolomitas, etc).

2) Con relación a los tratamientos fitosanitarios:

Queda prohibida:

a) La utilización de insecticidas, fungicidas y acaricidas y otros productos procedentes de la síntesis química.

Quedan autorizados:

a) Los fungicidas preparados a base de sustancias naturales minerales, vegetales o animales (caldo Bordelés, caldo Borgoñés, etc.).

b) Los distintos preparados a base de plantas (maceraciones, infusiones, decocciones, urines).

3) Con relación a las «malas hierbas»:

Queda prohibida la utilización de cualquier herbicida químico de síntesis.

Queda autorizada la utilización de los métodos biológicos para el control de hierbas competidoras (acolchado, escarda manual o semimanual, cultivo en bancal profundo).

4) Con relación a las semillas y las plantas:

Se evitarán, en la medida de lo posible:

a) La utilización de hortalizas para trasplantar que provengan de cultivo químico.

b) La utilización de raíces, bulbos y tubérculos tratados con productos químicos de síntesis para su preparación o conservación.

c) La utilización de semillas tratadas con productos químicos sintéticos después de su recolección.

EK\CV GAO-I-2015-04577

d) Edozein mota eta klasetako organismoak, genetikoki moldatuak (transgenikoak).

Onartuta dago:

a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera.

b) Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez baldin badituzte.

Garatu beharreko laborantza ekologiko horrek ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

*21. artikulua. Ureztatzeko baldintzak.*

1. Baratzeen erabiltzaileek Parkean eskura dituzten ureztatzeko baliabideak erabili behar dituzte.

2. Ezingo dira erabili daudenak ez diren beste elementu batzuk, pertsona ezinduak ezik. Hauek soilik erabil dezakete udaletxeak beraientzat jarritako ureztatze sistema.

3. Debekatuta dago horretarako prestatu ez den beste edonondik ura ekartzea baratzeak ureztatzeko.

*22. artikulua. Hondakinen trataera.*

1. Baratzeen erabiltzaileen erantzukizuna izango da lursaila garbi mantentzea eta horretarako hondakin organikoak konpost-gunean uztea.

2. Gainontzeko hondakinak Udalak horretarako zehaztutako tokian utziko dira.

*23. artikulua. Lurrak emandako fruituen helburua.*

1. Lurraren laborantzatik eskuratzen diren fruituak biltzeko eskubidea izango dute erabiltzaileek, baina soilik euren kontsumorako edo euren familiarenerako erabili ahal izango dituzte.

2. Debekatuta dago erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoetatik jasotzen dituzten produktuak saltzea, baita horiekin edozein eragiketa komertzial egitea ere.

*24. artikulua. Mantentze-lanen gastuak eta finantzazio gastuak.*

1. Erabiltzaileak lizentziaren indarraldiaren bitartean baratzearen laborantzak dakartzan gastuen kargu egin beharko du: ongarriak, landatutako landareak eta laborantzarako beharrezkoak diren gainerakoak.

2. Erabiltzaileek ordaindu egin beharko dute dagokien karga oro (zergak, kanonak), eta Udalak beharrezkotzat jotzen dituenak baratzeen erabilerak edo erabiltzaileen komunitateak eragindako kostuak ordaintzeko.

3. Udalak kanon bat aplikatu dio baratzearen laborantzari, baita fidantza bat ere, udal eremu publikoko gunearen erabilera egokia bermatzeko; kopuru hauek erabiliko ditu:

a) Kanona: 5 € 40 m$^2$-ko baratze bat hilero erabiltzeagatik.

b) Fidantza: 50,00 € fidantza eman beharra dago udal eremu publikoaren erabilera zuzena bermatzeko.

Kopuru horiek dagokien ordenantza fiskalean jasoko eta eguneratuko dira.

c) Ura erabiltzearen gastua: baratzetako gastua udalak asumituko du.

*25. artikulua. Ingurumen Hezkuntza.*

1. Eskoletako umeek aisialdirako baratze ekologiko horiek bisitatu ahal izango dituzte, baratzeotan egiten diren jardueren berri izateko, eta nekazaritza tradizional eta ekologikoaren gaineko balioak ezagutzeko.

d) Todos los organismos modificados genéticamente de cualquier tipo y variedad (transgénicos).

Queda autorizada:

a) La utilización de hortalizas, raíces, bulbos, tubérculos y semillas que proceden de la agricultura biológica.

b) La utilización de estos productos, que, aunque procedentes de cultivos convencionales, no hayan sido tratados con productos químicos de síntesis.

El cultivo ecológico a desarrollar debe servir como ejemplo de prácticas de producción y consumo sostenibles.

*Artículo 21. Condiciones para el riego.*

1. Los usuarios de los huertos, deberán utilizar el medio para riego que se ha puesto a su disposición dentro de las instalaciones.

2. No podrán utilizarse otros elementos ajenos a los existentes, excepto en los casos de personas impedidas, que deberán utilizar el sistema de riego instalado para ellas por el Ayuntamiento.

3. Queda prohibida la traída de aguas desde cualquier otro punto que no se encuentre habilitado al efecto, para el riego en los huertos.

*Artículo 22. Tratamiento de residuos.*

1. Los usuarios de los huertos serán responsables del adecuado estado de limpieza de la parcela y para ello deberán depositar los restos orgánicos en la compostera.

2. El resto de residuos deberán depositarse en el espacio habilitado por el Ayuntamiento.

*Artículo 23. Destino de los frutos de la tierra.*

1. Los usuarios tendrán derecho a la recolección de los frutos que se deriven del cultivo de la tierra, pero únicamente los podrán destinar a consumo propio o de su unidad familiar.

2. Queda prohibida toda venta de productos hortícolas que obtengan los usuarios de los huertos ecológicos de ocio, o cualquier otra operación comercial.

*Artículo 24. Gastos de mantenimiento y financiación.*

1. Durante la vigencia de la licencia, el usuario del huerto debe hacerse cargo de los gastos que comporte el cultivo del huerto: abonos, plantas sembradas y demás necesarias para el cultivo y manteniendo la plantación.

2. Los usuarios estarán obligados a soportar la imposición de cualquier gravamen (tasa, cánones), y los que considere necesario el Ayuntamiento para sufragar los costes que se deriven de la utilización de los huertos.

3. El Ayuntamiento aplicará un canon por el cultivo del huerto y una fianza en garantía de la correcta utilización del espacio de dominio público municipal con arreglo a las siguientes cuantías:

a) Canon: 5 € mensuales por la utilización de un huerto de 40 m$^2$.

b) Fianza. Se debe depositar una fianza por importe de 50,00 € en garantía de la correcta utilización del dominio público municipal.

Dichas cantidades serán contempladas y actualizadas en la correspondiente ordenanza fiscal.

c) Gasto de consumo de agua: El Ayuntamiento asumirá el gasto de consumo de los huertos.

*Artículo 25. Educación Ambiental.*

1. Los huertos ecológicos de ocio podrán ser visitados por escolares de los distintos centros educativos, con el fin de dar a conocer las actividades desarrolladas en los mismos, e inculcar los valores sobre la agricultura tradicional y ecológica.

EK\CV GAO-I-2015-04577

2. Alde horretatik, erabiltzaileek, ezinbestean, aukera eman beharko diete eskoletako taldeei baratzeetara sartzeko, Udalak Hezkuntza arloko administrazioekin edo beste herri administrazioekin antolatutako bisiten kasuan.

3. Kasu horietan, erabiltzaileak lagundu egin beharko die taldeko arduradunari edo irakasleari, ahal duen neurrian, baratzeko bisitan. Bisita horietan, laborantzaren teknikak eta ezaugarriak azalduko zaizkie: lurraren prestaketa, ongarriztatzea, landaketa, ureztatzea, jorratzea, izurrien garbiketa, bilketa eta hondakinen kudeaketa.

4. Eurek dakitena erakusteaz batera, lurrari eta naturari lotutako balioak transmititu ahal izango dituzte erabiltzaileek: landatzeko metodoak, erabilitako espezieak, nekazaritza tradizional eta ekologikoaren ezaugarriak eta garrantzia, ingurumenarekiko errespetua eta datozen belaunaldiekiko erantzukizuna.

*26. artikulua. Erabiltzaile eskubidea galtzea.*

1. Araudi honetan ezarritakoa ez betetzeak aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaile eskubidea erabat galtzea ekarriko du: baratzea erabiltzeko eskubidea eta elementu komunak erabiltzeko eskubidea.

2. Erabiltzaile eskubideak galtzeko arrazoiak:

a) Eskubideari uko egitea edo bertan behera uztea. Kasu horietan, onuradunak Udalari aurkeztu beharko dio uko egite hori.

b) Heriotza edo laborantza lanak eragozten dituen gaixotasunen bat izatea.

c) Erroldan baja ematea, edo modu jarraian ez bizitzea udalerrian, lizentziak dirauen bitartean.

d) Lursailaren laborantza edo erabilera bertan behera uztea, hilabete baino denbora gehiagoz.

e) Esleipena eragin zuten beste edozein baldintza desagertzea.

f) Araudi honetan aipatzen diren bateraezintasun edo debekuren bat agertzea.

g) Baratzea erabiltzea araudi honetan ezarritakoa ez den beste helburu batzuekin.

h) Udalak edo beste Herri Administrazio batek hirigintza edo azpiegitura planen bat onartzea, aisialdirako baratze ekologikoen lurretan zuzkidura publiko bat ezartzea eragingo lukeena.

Kasu horietan, aipatutako planaren onarpenak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitorpena izango du, eskatzen diren lursailen erabilera tituluak indargabetuko dituena.

Lurzoru pribatuetan udalaren eta jabetza pribatuaren arteko kontratua bukatzea.

i) Bizikidetza, auzokidetza edo elkartasunik gabeko jarreren inguruko oinarrizko arauak ez betetzea.

j) Hutsegite arin, larri edo oso larriengatik isun bat jasotzea, lizentzia galtzea eragingo lukeena beti.

*27. artikulua. Lizentzia kentzeko prozedura eta erabiltzaile izaera galtzea.*

1. Erabiltzaile izateko eskubidea galtzea Udalak tramitatuko du, lizentzia kentzeko prozedurari jarraituz. Erabiltzaileari lizentzia kentzeko arrazoiak azalduko zaizkio eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Ondoren, espedientea behin betiko ebatziko da.

2. A tales efectos, los usuarios de los huertos estarán obligados a permitir la entrada en los mismos de los grupos escolares incluidos en visitas que se hayan organizado por el Ayuntamiento, en colaboración con la administración educativa u otras administraciones públicas.

3. En tales casos, el usuario deberá colaborar, en la medida de sus posibilidades, con los docentes o demás personas que acompañen a los escolares. Durante la estancia, se explicarán las técnicas y propiedades de los cultivos: preparación de la tierra, abonado, sembrado, regado, escardado, eliminación de plagas, recolección y retirada de residuos.

4. Los usuarios, además de aportar sus conocimientos, podrán transmitir valores ligados a la tierra y la naturaleza: métodos de cultivo, especies usadas, características e importancia de la agricultura tradicional y ecológica, respeto del medio ambiente y responsabilidad intergeneracionales.

*Artículo 26. Pérdida de la condición de usuario.*

1. El incumplimiento de lo estipulado en la presente reglamento, provocará la pérdida de la condición de usuario de los huertos ecológicos de ocio: del derecho de uso del huerto y del derecho de uso de los elementos comunes.

2. En especial causan la pérdida de la condición de usuario:

a) Desistimiento o renuncia a su derecho, presentada por el beneficiario del uso del huerto ante el Ayuntamiento.

b) Defunción o enfermedad que incapacite al usuario para desarrollar las labores propias del huerto.

c) Pérdida del empadronamiento, o no vivir ininterrumpidamente en una vivienda de este municipio durante todo el periodo de vigencia de la licencia.

d) Abandono en el uso o cultivo de la parcela, durante más de un mes.

e) Por desaparición sobrevenida de cualesquiera otras de las circunstancias que motivaron la adjudicación.

f) Concurrencia de cualquiera de las incompatibilidades o prohibiciones que se detallan en este reglamento.

g) Utilización del huerto para uso y finalidades diferentes a las establecidas en este reglamento.

h) Aprobación de cualquier Plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio.

En estos casos, la aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, a efectos de dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos demaniales.

En las parcelas privadas, finalización del contrato entre el Ayuntamiento y la propiedad privada.

i) Incumplimiento de las normas básicas de convivencia, relaciones de vecindad o conducta insolidaria, para con los demás hortelanos.

j) Imposición de una sanción por falta leve, grave o muy grave, que conllevan siempre aparejada la revocación de la licencia.

*Artículo 27. Procedimiento de revocación de la licencia y pérdida de la condición de usuario.*

1. La pérdida de la condición de usuario, se realizará por el Ayuntamiento siguiendo un procedimiento para la revocación de la licencia. Se expondrán los hechos al usuario otorgando plazo de 10 días para alegaciones al usuario. A continuación, se resolverá definitivamente el expediente.

EK\CV GAO-I-2015-04577

2. Erabiltzaile izateko eskubidea galtzeak ez du, inola ere, erabiltzaile horrek kalte-ordainen bat jasotzeko eskubiderik emango, ezta ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik ere. Era berean, galera horrek fidantza galtzea ere ekarriko du. Horrez gain, sortutako gastu eta kalteak ordaindu beharko ditu. Baratzea itxaron zerrendako hurrengo eskatzaileari esleituko zaio.

IV. ATALA

ERANTZUKIZUN ERREGIMENA

*28. artikulua. Erabiltzailearen erantzukizuna.*

Erabiltzaile bakoitzak bere baratzearen gaineko erantzukizun osoa izango du. Erabiltzaileak lizentzia eskatzearekin batera araudi honek dioena onartzen du. Hortaz, laborantzatik eta erabileratik eratorritako erantzukizuna berea da ezinbestean, araudi honek ezarritako parametroetan.

Ondorioz, erabiltzaileak hauen guztien ardura du:

1. Laborantzaren prozesua. Udala ez da laborantza prozesuaren eraginen edo emaitzen erantzulea, ezta lurraren egoerarena edo lurraren emankortasunarena ere.

2. Lurra lantzeko mota. Udalak ez du lanabesen erabileraren gaineko erantzukizunik izango, ezta horien erabilerak inoren osasunean edo osotasun fisikoan duen eraginarena ere.

3. Norbere produktu eta lanabesak. Udalak ez du erantzukizunik baratzean gerta daitezkeen lapurreta, kalte edo ekintza bandalikoetan. Ezta erabiltzaileak gordetako edo bildutako produktu, fruitu edo lanabesen lapurretan ere.

4. Animaliek sortutako kalteak. Araudi honen kontra erabiltzaileak animaliarik sartzen badu baratzeetan, animalia horrek sortutako kalteen erantzule izango da.

5. Baratzean bildutako produktuak. Produktu horiek norberaren edo beste edonoren osasunean sor ditzaketen kalteen erantzule izango da erabiltzailea.

6. Erabiltzaileak Udalari jakinarazi behar dio lagatako baratzean edo instalazioetan kalterik edo hutsik ikusten baldin badu, norberarenean zein beste baten baratzean.

*29. artikulua. Hirugarrenen aurreko erantzukizuna.*

1. Erabiltzaileek erantzukizun bera izango dute hirugarrenei eragindako kalteen kasuan, aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaile izan ala ez, aisialdirako baratze ekologikoen erabileran eta aprobetxamenduaren gauzatzean gertatu badira.

2. Era berean, beste erabiltzaileei edo beren baratzeei eragindako kalte edo lesioen erantzule ere izango dira.

3. Behar den prestutasunarekin jokatu beharko da edozein kalte, eragozpen edo lesio saihesteko, gainerako baratzeetako erabiltzaileei zein beren baratzeei.

*30. artikulua. Udalari eman beharreko kalte-ordaina.*

1. Erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte hirugarrenei edo hirugarrenen ondasunei erabiltzailearen jardunak eragindako kalteak.

2. Erabiltzeko lagatako instalazioei edo baratzeei eragindako kalteengatik sortuko balitz erantzukizuna, Udalak dagokion kalte-ordaina eskatzeko duen eskubidea erabiliko du, aplikagarria den zuzenbide administratiboaren arauei jarraiki.

*31. artikulua. Hasierako egoerara itzultzea.*

1. Baratzeak erabiltzaileari laga zitzaizkionean zuten egoera berean itzuliko dira, kanpoko ekarpenekin lurra nabarmen aldatua izan gabe.

2. La pérdida de la condición de usuario no dará lugar en ningún caso, al reconocimiento de indemnización alguna a favor de aquél, ni derecho alguno a la devolución de lo abonado. Además, esa perdida, supone la incautación de la fianza, y la indemnización de daños y perjuicios irrogados al Ayuntamiento. Se adjudicará el huerto al siguiente solicitante posicionado en la lista de espera.

TÍTULO IV

RÉGIMEN DE RESPONSABILIDAD

*Artículo 28. Responsabilidad del usuario.*

Cada usuario será responsable de los actos que realice sobre su huerto. La solicitud de licencia por el usuario supone la plena aceptación de este reglamento e ineludiblemente la asunción por el mismo de la responsabilidad derivada de la ocupación y del cultivo, en los términos establecidos en el este reglamento.

Por lo tanto, el usuario tiene responsabilidad sobre:

1. El proceso de cultivo. El Ayuntamiento no es responsable de ninguno de los efectos o resultados del proceso de cultivo, ni del estado de la tierra y de su capacidad productiva.

2. La forma de cultivo de la tierra. El Ayuntamiento no es responsable de la utilización de los aperos ni de las consecuencias para la salud o integridad física del usuario derivados de la forma de uso de las mismas.

3. Aperos y productos del usuario. El Ayuntamiento no es responsable de los actos vandálicos, robos o daños sufridos en el huerto, sus productos o frutos, o los aperos almacenados o guardados del usuario.

4. Daños producidos por los animales. Si en contra de este reglamento, el usuario introduce animales en los huertos, será responsable de los daños que produzca.

5. Productos recolectados en el huerto. El usuario será responsable de los efectos que para la salud, propia o de terceros produzcan estos productos,

6. El usuario está obligado a avisar al Ayuntamiento en el caso de detectar daño o desperfecto en el huerto o instalaciones cedidas, propio o de terceros.

*Artículo 29. Responsabilidad frente a terceros.*

1. Los usuarios será igualmente responsables de los posibles perjuicios a terceros, usuarios o no de otros huertos ecológicos de ocio, y que se causaran en el ejercicio de sus facultades de uso y aprovechamiento sobre los huertos ecológicos de ocio.

2. Asimismo, responderán de las lesiones o daños que ocasionen sobre los demás hortelanos o sus respectivos huertos.

3. Se deberá actuar con la debida diligencia, en orden a evitar cualquier tipo de daño, molestia o lesión sobre los huertos de los demás usuarios, o sobre los propios usuarios.

*Artículo 30. Indemnización por daños y perjuicios al Ayuntamiento.*

1. Los usuarios estarán obligados para con el perjudicado, a la correspondiente indemnización por los daños o lesiones producidos.

2. En el caso de que la responsabilidad se originase por daños al huerto o a las instalaciones que se ceden para su uso, el derecho a reclamar la correspondiente indemnización se ejercerá por parte del Ayuntamiento, en base a las normas de derecho administrativo que devengan aplicables.

*Artículo 31. Restauración al estado de origen.*

1. Los huertos serán devueltos en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidas al adjudicatario, sin que la tierra haya sido modificada sustancialmente por aportes externos.

EK\CV GAO-I-2015-04577

2. Erabiltzaileek gauzak hasierako egoerara itzuli edo konpondu beharko dituzte, instalazioak erabilera normalean baino gehiago hondatzen direnean.

3. Lanabesen kasuan, erabiltzaileak baratzea uzterakoan, hasierako egoeran itzuli beharko ditu.

4. Erabiltzaile batek gauzak konpontzeko lanak egingo ez balitu, Udalak zuzenean egin ahal izango ditu. Kasu horretan erabiltzaileari kobratuko zaizkio sortutako gastuak.

V. ATALA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

*32. artikulua. Arau orokorrak.*

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek araudi honetan ezarritako guztia bete beharko dute; eta, hemen aurreikusi ez diren kasuetan, Tokiko Erakundeen ondasunen gaineko araudia bete beharko dute.

2. Araudi honek ezarritakoaren aurkako jarduera oro arauhaustetzat joko da eta Udalak zigortu egingo du.

3. Bide administratibotik zigortuko dira, isun bidez, araudi honetan jasotako baldintzetan erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoen instalazio edo lursailetan eragindako kalteak, doluz, erruz, negligentziaz edo konturatu gabe sortutakoak. Berdin jokatuko da baratze ekologikoen helburuak eta arauak urratzen direnean.

4. Zigorren zenbatekoaren graduazio eta zehaztapena irizpide hauen arabera egingo da:

a) Eragindako kaltearen tamaina.

b) Arau-hausleak jasotako etekina.

c) Nahitasuna, intentzionalitatea egon den ala ez.

d) Izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea urtebeteko epean, ebazpen irmoen bitartez jaso direnean.

5. Isunaren zenbatekoa arau-hausleak lortutako etekina baino txikiagoa denean, isunaren zenbatekoa handitu egingo da etekinaren zenbatekoa parekatzeraino; eta, gehienez ere, eragindako kaltearen bikoitzeraino igo ahal izango da.

6. Erabiltzaileen erantzukizuna nagusia edo zuzenekoa, edota zeharkakoa izan daiteke. Nagusia edo zuzenekoa izango da eurak badira arau-haustearen egileak. Zeharkakoa, ekintzen egilea kanpoko beste norbait denean eta erabiltzailearen borondate onez edota horren negligentziaz ahalbidetu dituenean, sartzea debekatuta zuten hirugarrenei sartzen utziz.

*33. artikulua. Ikuskaritza.*

1. Udalak izendatutako pertsonek instalazioen ikuskapenak egin ahal izango dituzte. Pertsona horiek agintari izaera izango dute ikuskapena egiten ari den bitartean. Era berean, alkateak eta eskumena duen zinegotzi ordezkariak ere funtzio berberak izango dituzte.

2. Erabiltzaileek aipatu berri diren pertsonei baratzeetara sartzen utzi beharko diete, baita haiek eskatzen dieten informazio guztia eman ere, aisialdirako baratze ekologikoetan egindako laborantzaren erabilera, aprobetxamendu eta kudeaketaren jarraipena egin ahal izateko.

*34. artikulua. Arau-hausteak.*

1. Araudi honetan edo aplika daitekeen beste edozein arauditan (araudi honetan jasotzen baldin bada beste araudi hori ezinbestean bete behar dela) esandakoaren aurkako

2. Los titulares del uso sobre los huertos, en los casos de deterioro en las instalaciones, que no fuera el normal a causa del uso diario, deberán reponer o restaurar las cosas a su estado de origen.

3. En el caso de los aperos, el usuario al dejar de usar el huerto deberá devolverlos en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidos.

4. En el caso de que algún usuario no cumpliera con su obligación de reparar, lo podrá hacer directamente el Ayuntamiento, a costa de aquél, ejerciendo las potestades para el reintegro.

TÍTULO V

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 32. Reglas generales.*

1. Los usuarios de los huertos ecológicos de ocio vendrán obligados al cumplimiento de todo lo establecido en la presente reglamento y en lo no previsto en la misma, a lo dispuesto por la normativa sobre bienes de las Entidades Locales.

2. Cualquier conducta contraria a los preceptos de este reglamento, se encuentra tipificada como infracción y será sancionada por el Ayuntamiento.

3. Los usuarios que por dolo, culpa, negligencia o aún a título de simple inobservancia, causen daños en las instalaciones o parcelas demaniales en las que se ubican los huertos ecológicos de ocio, o contraríen el destino propio de los mismos y las normas que los regulan, serán sancionados por vía administrativa con multa, en los términos establecidos en el presente reglamento.

4. La graduación y determinación de la cuantía de las sanciones, atenderá a los siguientes criterios:

a) La cuantía del daño causado.

b) El beneficio que haya obtenido el infractor.

c) La existencia o no de intencionalidad.

d) La reincidencia por comisión en el plazo de un año de una o más infracciones de la misma naturaleza, cuando hayan sido declaradas por resoluciones firmes.

5. Cuando la cuantía de la multa resulte inferior al beneficio obtenido por el infractor, la sanción será aumentada hasta el importe en que se haya beneficiado, con el límite máximo del tanto al duplo del perjuicio ocasionado.

6. La responsabilidad de los usuarios podrá ser principal o directa, o subsidiaria. Será principal o directa en el supuesto de que sean los mismos los autores de la conducta infractora. Subsidiaria cuando el autor de los hechos sea persona ajena a las instalaciones que hubiera cometido los mismos con la benevolencia del usuario o por negligencia de éste, al permitir la entrada a personas terceras que lo tuvieran prohibido.

*Artículo 33. Inspección.*

1. El personal designado por el Ayuntamiento podrá realizar las actuaciones de inspección sobre las instalaciones cedidas. Dicho personal tendrá la consideración de autoridad en el ejercicio de sus facultades de inspección. Asimismo el alcalde y el concejal delegado con competencia sobre el servicio tendrán el mismo cometido y funciones.

2. Los usuarios deberán facilitar a las personas anteriormente citadas el acceso a los mismos, así como el suministro de información que por aquéllas se les requiera, en orden al seguimiento de la gestión, uso y aprovechamiento del cultivo que se lleve a cabo de los huertos ecológicos de ocio.

*Artículo 34. Infracciones.*

1. Se considerará conducta infractora, todo aquel acto llevado a cabo tanto por los usuarios de los huertos, como por persona ajena a los mismos, que contravenga lo dispuesto en la

jarrera duen oro arau-hausletzat joko da; berdin baratzeen erabiltzailea izan edo zerikusirik ez duena izan.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, jarrera arau hauslearen intentsitatearen edo erruaren mailaren arabera; edota instalazioetan eragindako kalteen tamainaren arabera.

3. Zehazki, eta aurrekoari kalterik egin gabe, arau-hauste arintzat joko dira honako jarrera hauek:

a) Araudi honetan espresuki zehaztutako moduan barazki espezieak landatzeko eta lantzeko ez erabiltzea baratzeak.

b) Kanpoko pertsonei instalazioetara sartzen uztea; familiako kideak, erabiltzaileari tarteka laguntzen diotenak, ikasleak edo baimendutako pertsonak salbu.

c) Baratzeetan animaliak izatea.

d) Baratzeetan trakzio mekanikoko ibilgailuak izatea.

e) Ez betetzea Udalak eta teknikariek emandako jarraibideak.

f) Araudi honek ezarritako betebehar eta zereginen aurkako jarrera oro, ez bada arau-hauste larria edo oso larria.

g) Udalak antolatzen dituen formazio ikastaroetara ez joatea, justifikatu gabe.

4. Arau-hauste larritzat joko dira honako jarrerak:

a) Baratzeen mantentze-lanak ez betetzea, baratzeak kaltetu edo hondatu diren kasuetan.

b) Lursailean lanak edo aldaketak egitea, Udalaren hartarako baimenik eman gabe.

c) Beste erabiltzaileei behar ez diren eragozpenak sortzea.

d) Udalak horretarako baimendu gabe hirugarrenei baratzeak erabiltzen lagatzea.

e) Lurra, lurzorua edo azpiko lurra honda lezaketen espezieak edo landareak lantzea.

f) Baratzeetan onartzen ez diren barbakoa, biltegi edo bestelako elementuak jartzea.

g) Larreak edo baratzeetako laborantzaren hondarrak erretzea, baita edozein eratako suak piztea ere.

h) Bi huts-egite arin edo gehiago egitea urtebetean.

5. Arau-hauste oso larritzat joko da honako edozein jardunbide:

a) Erabiltzaile batek edo harekin batera datorren beste edonork beste erabiltzaileei eragindako lesioak.

b) Zoruan kutsadura sortzea.

c) Beste nekazarien jarduera edo aprobetxamendu normala oztopatzea.

d) Baratzeen funtzionamendu arrunta oztopatzea edo eragoztea.

e) Lagatzen diren instalazioak edota lursaila bera larriki hondatzea.

f) Debekatuta dauden landare exotiko edo psikotropikoak edukitzea, landatzea, ereitea, biltzea edo ekoiztea.

g) Baratze ekologikoetan lortutako produktuak komertzializatzea.

presente reglamento o en cualquier otra normativa que resultara de aplicación (si ésta última está recogida como de obligado cumplimiento en el presente reglamento).

2. Las infracciones se calificarán en leves, graves o muy graves, en atención al grado de intensidad o culpabilidad en la conducta infractora, o al daño causado a las instalaciones.

3. En concreto, y sin perjuicio de lo anterior, se considerarán infracciones leves las siguientes conductas:

a) No destinar los huertos al cultivo y plantación de aquellas especies vegetales propiamente hortícolas en los términos expresamente dispuestos en este reglamento.

b) Permitir el paso a las instalaciones de personas ajenas a las mismas, salvo que sean familiares, personas que acompañen ocasionalmente al usuario, escolares o personal autorizado.

c) La tenencia de animales en los huertos.

d) La presencia de vehículos de tracción mecánica en los huertos.

e) No acatar las instrucciones del Ayuntamiento y de los técnicos.

f) Cualquier otra conducta contraria a las obligaciones y deberes impuestas por este reglamento, que no tuviera la calificación de infracción grave o muy grave.

g) No asistir, sin causa justificada, a los cursos de formación que organice el Ayuntamiento.

4. Tendrán la consideración de infracción grave, la comisión de las siguientes conductas:

a) Incumplimiento en el mantenimiento de los huertos, cuando se hubieren originado perjuicios o deterioros en aquéllos.

b) La realización de obras o modificaciones en la parcela, que no estuviesen autorizadas por el Ayuntamiento.

c) Causar molestias a los demás hortelanos que no tuvieran el deber de soportar.

d) La cesión del uso del huerto a terceras personas que no hubieran sido autorizadas para ello por el Ayuntamiento.

e) Cultivar especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.

f) La instalación de barbacoas, cobertizos o demás elementos no permitidos en los huertos.

g) La quema de pastos o restos del cultivo de huertos, así como la generación de cualquier tipo de fuego.

h) La acumulación de dos o más faltas leves en el periodo de un año.

5. Tendrán la consideración de infracción muy grave, la comisión de las siguientes conductas:

a) Las lesiones que se causen a los demás hortelanos, por actos propios cometidos por cualquier usuario o terceras personas que lo acompañaren.

b) Provocar una contaminación del suelo.

c) Impedir el normal desarrollo del aprovechamiento y uso de los huertos por los demás hortelanos.

d) Impedir u obstruir el normal funcionamiento de los huertos.

e) Causar un deterioro grave y relevante a las instalaciones que se ceden y/o a la parcela en su conjunto.

f) Producción de plantas exóticas o psicotrópicas u otras cuya siembra, cultivo, recolección o tenencia estuviesen prohibidos.

g) Comercializar los productos obtenidos del cultivo de los huertos ecológicos de ocio.

EK\CV GAO-I-2015-04577

h) Lizentzia eskatzerakoan datuak faltsutzea (nortasuna, adina edo onuraduna izateko bete beharreko beste edozein datu).

i) Bi huts-egite larri edo gehiago egitea urtebeteko epean.

6. Lizentziaren titularrak huts-egite arin, larri edo oso larriren bat egiteak lizentzia hori kentzea ekarriko du, ezarriko zaion zigorraren kalterik gabe, hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraiki. Lizentzia kentze horrek ez dio erabiltzaileari kalte-ordainak jasotzeko aukerarik emango.

Erabiltzaileren batek izandako jarrerak delitu izaera badu, gertakari horiek horretarako eskumena duten agintari judizialei jakinaraziko zaizkie, dagozkien ondorioak izan ditzaten.

Edonola ere, Udalak bultzatuko ditu kaltetu moduan legozkiokeen ekintza penal, zibil eta administratibo guztiak.

*35. artikulua. Zehapenak.*

1. Legozkiokeen zehapenen kopurua ezarri eta erabakitzeko, araudi honetan jasotako graduazio-irizpideak erabiliko dira.

2. Arau-hauste arinak: 60 € eta 300 € bitarteko isuna.

3. Arau-hauste larriak: 301 € eta 1.000 € bitarteko isuna.

4. Arau-hauste oso larriak: 1.001 € eta 3.000 € bitarteko isuna.

5. Instalazioetan kalterik eragin baldin badu, erantzukizuna duen erabiltzaileak gauza guztiak hasierako egoeran zeuden bezala utzi beharko lituzke berriz, eragindako kaltea konponduta.

6. Lizentzia kentzea ez da zigortzat joko, aurreko artikuluaren seigarren atalean aurreikusitakoaren kasuan.

*36. artikulua. Zehapena egiteko eskumena duten agintariak.*

1. Dagozkion zigorrak jartzeko eskumena Alkate-Udalburuari dagokio.

2. Edonola ere, Alkateak tokiko beste organo bati eskuordetu ahalko dio zigorra jartzeko gaitasuna, Tokiko Jardunbideen Oinarrien Legeari jarraiki.

*37. artikulua. Zigorra ezartzeko prozedura.*

1. Arau-hausleei zigorrak jartzea prozedura zigortzaile baten ondorioa izango da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen ix Atalean aurreikusitako erregimenaren arabera.

Azkoitia, 2015eko maiatzaren 18a.—Alkatea. (4577)

h) Falsear los datos al solicitar la licencia (relativos a la identidad, edad o cualquier otro relevante para la adjudicación).

i) La acumulación de dos o más faltas graves dentro del término de un año.

6. La comisión de alguna infracción, leve, grave o muy grave, por parte del titular de la licencia, dará lugar a la revocación de la misma, sin perjuicio de la sanción que asimismo se imponga, conforme a lo dispuesto en el artículo siguiente. Dicha revocación, no dará lugar a abonar indemnización alguna al usuario.

Si cuando la conducta llevada a cabo por algún usuario, revistiera carácter de delito, se pondrán los hechos en conocimiento de la autoridad judicial competente, a fin de las posibles responsabilidades que se pudieran derivar.

No obstante ello, el Ayuntamiento instará las acciones penales, civiles o administrativas, que como parte perjudicada le correspondieran.

*Artículo 35. Sanciones.*

1. Para la imposición y determinación de la cuantía de las correspondientes sanciones, se atenderá a los criterios de graduación establecidos en el presente reglamento.

2. Infracciones leves: Multa de 60 € a 300 €.

3. Infracciones graves: Multa de 301 € a 1.000 €.

4. Infracciones muy graves: Multa de 1.001 € a 3.000 €.

5. En el supuesto de que se hubieran causado daños a las instalaciones, el usuario responsable vendrá obligado a reponer las cosas a su estado de origen, reparando el daño ocasionado.

6. La revocación de la licencia, conforme se prevé en el apartado sexto del artículo anterior, no tendrá carácter de sanción.

*Artículo 36. Autoridad competente para sancionar.*

1. La competencia para la imposición de las sanciones correspondientes, se atribuye al Alcalde-Presidente.

2. No obstante lo anterior, el Alcalde podrá delegar en cualquier otro órgano local, la facultad sancionadora, con arreglo a la ley de bases de régimen local.

*Artículo 37. Procedimiento sancionador.*

1. La imposición de sanciones a los infractores exigirá la apertura y tramitación de procedimiento sancionador, con arreglo al régimen previsto en el Título ix de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Azkoitia, a 18 de mayo de 2015.—El alcalde. (4577)

EK\CV GAO-I-2015-04577